

Bi zaharberritze Iruñean: Kondestablearen Jauregia eta Caparroso Errota



Ander Goiburu °



Kondestablearen jauregia zaharberritzearen aurretik eta ondoren

Caparroso Errota zaharberritzearen aurretik eta ondoren

2010. urtean Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak zaharberritze eta berriztapenaren alorrean Iruñean dauden bi eraikin saritu zituen. Alde Zaharreko Kale Nagusian dagoen Fernando Tabuenca eta Jesús Leacheren XVI. mendeko Kondestablearen Jauregiaren zaharberritzeak irabazi zuen saria eta Argaren gainean hegan dagoen Rufino Bruguera, Javier Jabat eta José Ignacio Alfonsoren XI. mendeko Caparroso Errotaren berriztapena finalista izan zen.

Bi zaharberritzeak saiatu dira eraikinen zati berriak zaharren mimitikoak ez izaten, baina bi kasuetan ondorioak erabat ezberdinak izan dira. Hori dela-eta, zaharberritzearen aurrean har daitezkeen jarrera ezberdinen adibide esanguratsuak eta kalitatezkoak dira biak.

Kondestablearen Jauregia zentro zibikoaren kasuan eraikinen zaharberritzeak bi zati ditu, **berria zaharraren barruan**. Kanpoaldea eraikin zaharraren berritza izan da, eraikinaren jatorrizko ertz zorrotza eta fatxadako hutsuneak antzianako itxurara itzuli dituzte. Barnealdean berreraiki dituzten elementu bakarrak patioko harrizko zutabeak izan dira; gainerakoan zati berria erabat garaikidea da bai itxuran eta bai teknologian (hormigoizko hormak, zur laminatuzko habeak, etab.). Zati berriaren eta zaharraren loturan kontrastea eragoz-

ten saiatu dira, hori lortzeko materialen jarraitutasuna erabili dute: terrakota, kare eta igeltsuzko morteroak, zura eta harria; guztiak eskuragai dira eraikina sortu zenetik gaur egunera. Tabuenca&Leache estudioak, bere proiektu guztietan egiten duen bezala, xehetasun guztiak zaindu ditu, haiek dioten moduan, *“diseinatzeke garaian ezabagailua arkatza baino gehiago erabiliaz”*, ondorioa eraikin garbi, indartsu, lasaia eta denboraz kanpoko da.

Caparroso Errota piraguismo-eskola bihurtzeko, aurreko kasuan ez bezala, **zaharra eta berria kontrajarri** nahi izan dituzte. Berria horizontala, ortogonala, arina eta gardena den bitartean; zaharra bertikala, organikoa, astuna eta itxia da. Bi zatien lotura beirazko pasabideen bidez egiten da eta zati berriak ez ditu horma narriatuak ukitzen. Aurreko eraikinaren kasuan ez bezala, errota eraikin zaharrarekin ez ezik, naturarekin ere erlazionatzen da, horren ondorioz, Argaren pasealekuak naturaz gain badu arkitektura ere ikusgai.

Zaharberritze hauei buruz gehiago jakiteko aukera eman digute Fernando Tabuenca eta Rufino Bruguera, gure galderei erantzunez. Bi arkitektoei antzeko galderak egin dizkiegu, eta irakur dezakezen bezala, erantzunak bi eraikinak bezain ezberdinak izan dira.

Kondestablearen jauregiari buruz Fernando Tabuencaarekin solasean

Zein zen zure zaharberitze-alorreko esperientzia proiektu hau egin baino lehen?

Karrera amaitzetik gutxira Juan de Herrera Institutuak antolatutako urtebeteko Ondarean Esku-hartze Ikastaro bat egin nuen Madrilgo Arkitektura Eskolan. Zuzendaria Salvador Pérez Arroyo zen, maila handiko irakasleak zituen: Linazasoro, Navarro Baldeweg, Solá-Morales, Sambricio... Horiez gain, alor honetan gehien erabilitako teknika eta irizpideak azaldu zizkiguten irakasle italiar ugari ere izan genituen. Ikastaro horretatik aurrera, Berlanga de Dueron (Sorian) auzolandegei bat zuzentzeko aukera izateaz gain, ondoren hango kolegiataren zaharberitze-proiektu txiki bat aurrera eraman ahal izan nuen. Esperientzia hauetatik zera ondorioztatu nuen, ondare historikoan esku-hartzea oso lan delikatu dela eta ezagupen teorikoak eta praktikoak, heldutasuna eta sentsibilitatea eskatzen dituela. Agian horregatik, ez Jesus eta ez ni, gure arteko elkarlana hasi genuenetik, orain arte ez ginen ausartu izaera honetako proiektu bati ekiten. Ondoren, Señorío de Sarría upeltegien zaharberitzea eta Vianako jauregi zahar baten proiektua egin ditugu.

Zein inpresio eta itxaropen sortu zituen eraikin zaharrak lehenengo aldiak ikusi zenutenean?

Lehen inpresioa erdiragarria zen, eraikina zegoen egoeragatik, aurre deklaratu zegoen. XVI. mendeko jauregiaren jatorrizko diseinua ezagutezina zen, XIX. mendearen bigarren erdialdean eta XX. mende osoan beritze-lanak jasan zituelako alokairurako etxebizitza eta dendak bideratzeko. Barnealdea solairuarantz eta tabikez osaturiko labirintua zen, bertan patioaren existentzia nabaritzea ere ezinezkoa zen. Fatxadak berak ere aldatuak izan ziren; ertzeko balkoia begiratokidun alaka batek ordezkatu zuen. Hala ere, proiektua prestatzen ari ginen bitartean, dokumentuen ikerketak, lagin arkeologiko batzuk, garbiketak eta zati batzuen eraispenak aurrera eraman ondoren, eraikina eta ezkutuan zituen altzorrak ezagutu ahal izan genituen. Horrela, eraikinaren garrantzi historikoa ulertu genuen, Iruñeko XVI. mendeko arkitektura zibilaren adibide bakarra, 150 urtetan zehar apezpiku-egoitza izan zen eta aldi baterako udalaren egoitza ere izan zen. Sabai faltsuek ezkutatuak zituzten 4.800 m² zurezko kasetoidura eta alfarje bata bestearen atzetik agertzen ikusi genituen, baita polikromiak, hormen dekorazioak eta garai ezberdinetako grafitoak. Lurrazpikoaren arkeologiak eraikina kokatu zen Erdi Aroko burgua sortu baino lehenagoko 150 hilobi dituen VII. mendeko nekropoli baten ezustea eman zigun.

Hori dela-eta, lan honek inork espero zuena baino gehiago eman zuen. Gure arkeologo eta zaharberritzaileen erropen handiko lanak, eraikuntza-enpresaren eta udaletxearen laguntzak hau guztia gaur egungo eta etorkizuneko hiritarren eta bisitarien gozamenerako kanpora agertzea ahalbidetu du.

Ezer berririk ikasteko aukerarik eman dizue proiektu honek?

Guretzat lan hau irudikatu daitezkeen ondarean esku-hartze

eta zaharberitze “master” osatuena dela esaten dugu. Nire ustez, zaharberitze-tratatuetan ikas daitezkeen eta teorikoki ezagutzen genituen **eraikuntza-patologia guztiak zituen eraikin honek: zimenduen azpiberritzea, zoruan eta hormetan injekzioak, solairuen apeoa eta karga-hormen ordezkatzeko, hormen eta fatxaden tenkatzea, zurezko habeen errefortzu eta txertatzeak, harrizko elementuen desmuntatze eta berreraikitzea, hezetasunak** eta abar eta abar. Horiei aurre egin behar izan diegu eraikina sendotzean, eta horri guztiari eraikina erabilgarri egiteko teknologia berrien ezarpenaren zailtasun tekniko eta estetikoak gehitu behar zaizkio (klimatizazioa, elektrifikatzea eta informatizatzea, suteen aurkako babesa, etab.).

Zein izan da eraikuntza-prozesuan topatu duzun zailtasun tekniko handiena?

Aurrean aipaturiko gai guztiek izan zuten zailtasuna. Gaur egun ikusten dugun eraikina, proiektuaren eta lanen gauzatzaren artean, zazpi urteko lanaren ondorioa da. Denbora horretan talde handi baten laguntza jasotzeko zortea izan dugu, proiektu eta obrako teknikariez gain, eraikuntza-enpresa eta bere arutz, igeltsero eta beste ofizioen gremioek eta zaharberitze-bulegoko udaletzeko teknikariek osatua.

Lanean jardundako teknikariek (historialariek, arkeologoek, zaharberritzaileek edo ingeniariak) ekarpen garrantzitsurik egin dizute?

Lan mota hauetan haien lana ezinbestekoa da. Arkitekturan esku-hartzea da ikerketa historikorako garai egokiena, bi lanek elkar laguntzen baitute. Guri, fatxaden kasuan bezala, artxiboetako dokumentuak aurkitzeak eraikinaren zati batzuk zaharberitzeko irizpideak eman zizkigun. Arkeologo eta zaharberritzaileek gabe, agertu diren gauza ugari betiko galduko lirakeke. Egituren ingeniariak eraikina altxa eta beste bostehun urterako biziraupena ziurtatzea ahalbidetu dute. Instalakuntzen ingeniariak, azkenik, XXI. mendeko zentro zibiko batek behar dituen erosotasun guztiak XVI.eko jauregi baten itxura kaltetu gabe ezartzea lortu dute gure eskaerei profesionaltasunez erantzunez.

Eragin dizuen edo esanguratsua iruditzen zaizuen zaharberitzaren bat aipatuko al zenuket?

Garatzen ditugun proiektu guztietan arkitekturaren historia osoa izaten da kontuan, gaur egungo arkitektoek haren oinarriak sentitu behar dugu, ikasteko iturri agortezina baita. Kasu honetan, **XVI. mendeko arkitektura ikertzeaz gain, XX. mendeko italiar maisu handien adibide berrienak aipatu behar dira “restauración científica” delakoaren alorrean eta ondare arkitetonikoan esku-hartzean**. Albin, BBPR edo Scarpa, Veronako *Castelvecchio*ren adibide paradigmakoarekin, dira erreferentzia sailhestezinak. Espainiar esparruan, denboran eta lekuan gertuagokoak, sentikortasun handiko esku-hartzeak daude, hala nola Víctor López Coteló eta Carlos Puentek Salamancako Casa de las Conchasen aurrera eraman zutena; bestalde, hiria XVI. mendeko arkitektura-adibideetan aberatsa da.

Caparroso errotari buruz Rufino Brugueraekin solasean

Zuen estudioa zaharberritze-lanetan espezializatua da- goela esan dezakegu?

1989an karrera amaitu genuenetik, zaharberritze-proiektuen bolumena nagusi izan dugu obra berrien aldean. Zaharberritzeak ez dira inoiz estudioaren proiektuen % 60 baino gutxiago izan, gaur egun gure lanaren ia % 100 izatera iritsi direlarik. Egin ditugun proiektu guztien artean, aipatzekoak dira etxebizitzak-erakin ugariaren erabateko zaharberritzeak, horretarako mota guztietako estaldurez eginiko fatxada aireztatuak erabili ditugu, arkitektura-oztopoak kendu ditugu, zapatak berritu ditugu, etab.

Zein inpresio eta itxaropen sortu zituen eraikin zaharrak lehenengo aldian ikusi zenutenean?

Eraikinaren historia luzea kontuan izanik, Caparroso Errotaren zaharberritzea proposamenaren hasierako planteamendutik eronka handia izan da. Eraikina, hasierako egoeraren argazkietan ikus daitekeen bezala, guztiz aurrituta zegoen, dorrearen estalkia eta harresien gaineko zatia izan ezik, hauek Iruñeko Udaleko Tailer Eskoletako ikasleek zaharberritu baitzituzten. Hori dela-eta, lehen inpresioa izan zen eraikin zahar-aren zaharberritze garrantzitsu bati aurre egin behar geniola, eta, erromesen ospitale, galdategi eta **zentral elektriko izan den eraikinaren bizitza luzean garai berri bat bezala bideratu genuen proiektua, berreraikitze historizistetatik ihes eginez.**

Zaharberritze-lanetan esperientzia handia bazenuten ere, ezer berririk ikasteko aukerarik eman dizue proiektu honek?

Edozein obra mota etengabeko ikasketa izaten da, hala ere, ez genuke esango proiektu hau aurrera eramateak gauza jakin bati buruz ezer zehatzik erakutsi digunik, hori bai, zaharberritzeak jada eraikia errespetatuz, baina gaur egun izan ditzakegun beharrei erantzunez, eraikuntza-teknikez eta baliabideen bidez egin behar direlako uste osoa indartu du proiektuak.

Zein izan da eraikuntza-prozesuan topatu duzuen zailtasun tekniko handiena?

Ibaiaren ubidetik gertuen zegoen zapata egitea izan zen zailena; izan ere, harlangaitzeko horma, 80 cm-ko lodierakoa, gutxi gorabehera 4,50 m-ko sakonerara zegoen zorura iristen zela topatu genuen.



Lanean jardundako teknikariek (historialariek, arkeologoek, zaharberritzaileek edo ingeniariak) ekarpen garrantzitsurik egin dizue?

Proiektua egiteko Gabinete Tramak eginiko estudio arkeologikoa izan genuen kontuan. Egokitzapen eta

01. Pistako piraguen biltegia
02. Turismoko kayaken biltegia
03. Mantenimendua eta irteera
04. Instalakuntza-gela

05. Komunak
06. Ateria
07. Masajegunea
08. Elbarrituen komuna
09. Aldagelak 2
10. Aldagelak 1

11. Sukaldea
12. Kafetegia
13. Terraza
14. Kiroldegia
15. Komunak
16. Dorrerako sarrera



zerbitzuen aldetik, eraikina berotzeko eta klimatizatzeko energia geotermikoaren bidezko bero-ponpa instalatu egin dira, ura berotzeko huts-hodizko eguzki-atzitzailak eta gas-galdara erabili ditugu. **Proiektatzeko garaian, errotaren nortasuna kontuan izanik, energia hidraulikoa erabiltzeko turbina bat jartzea proposatu genuen, baina ez zen aurrera eraman ez zegoelako behar besteko jauzi-altuerarik zentuzko etekinik lortzeko.**

Eragin dizuen edo esanguratsua iruditzen zaizuen zaharberritzeren bat aipatuko al zenuketee?

Gure ustez Rafael Moneok eginiko Nafarroako Artxiboaren eraikina adibide ona eta gertuko da.

° Ander Goiburua arkitektoa da.

